

## **9. KOSTUEN EGITURA**

Proiektu honek, kostu asko ekarri dizkigu, baina esan behar dugu ez garela bakarrik egon, hala nola, Tolosako udalaren laguntza jaso dugu. Ez bakarrik arlo ekonomikoan baizik eta sozialean ere.

Alde batetik, arlo ekonomikoan, diru laguntza batzuk jaso ditugu, adibidez, lokala udalarena da eta bertan bakarrik argi indarra ordaindu beharko genuke, horretaz gain azoka antolatzeko orduan ere lagundu digute guk ezin dugulako postua ordaindu. Gainera ideia estrategikoak kontuan izan dituzte, lokala Tolosako komertzialak gunearen barnealdean dagoelako kokatuta eta bertatik mugimendu asko nabari delako, ez bakarrik asteburuetan, baizik eta, astean zehar ere.

Bestalde, arlo sozialean ere laguntza asko jaso ditugu, udalak esan digutelako Tolosako herritarrei zer gustatzen zaien, zer nolako pertsonak diren eta zer nolako sentsibilitateak dituzten. Herritar guztientzako aukera paregabeak esakiniko ditugu guk guztientzako eskuragarriak izango direnak, beraien egunerokotasunean baliagarriak izango direnak eta horrela beraien nahiak asetuko ditugu.